

**HITZ URRI BATZUK**

Hitz urri batzuz dauzkat bakarrik  
ta abots kraskatu bat  
ta neure urrian ez dut kitarrik.  
Ba neukan ere jotzen ez dakit  
alferriko nuke  
ta neure urrian ez dut musikarik.  
Ta ez kantatzekoan  
abots kraskatu bat daukat ahoan  
ta nere urrian kantatzen ez dakit.  
Ta ezer ez dakit, ta ezer ez daukat  
neure herria baizik  
ta neure urrian ez dut neure a kuasik.

**XOXOA**

Xoxoak galdu mokoa (BI)  
xoxoak mokoa xoxoa  
nola kanta nola xirula  
oi, nola kanta xoxoak.

Xoxoak galdu begiak (BI)  
xoxoak begiak mokoa xoxoa  
nola kanta nola xirula  
oi, nola kanta xoxoak.

Xoxoak galdu burua (BI)  
burua begiak mokoa xoxoa  
nola kanta nola xirula  
oi, nola kanta xoxoak.

Xoxoak galdu lepoa (BI)  
lepoa burua begiak mokoa xoxoa  
nola kanta nola xirula  
oi, nola kanta xoxoak.

Xoxoak galdu hegala (BI)  
hegala lepoa burua begia mokoa xoxoa  
nola kanta nola xirula  
oi, nola kanta xoxoak.

Xoxoak galdu buztana (BI)  
buztana hegala lepoa burua begiak mokoa xoxoa  
nola kanta nola xirula  
oi, nola kanta xoxoak.

Xoxoak galdu ipur zilua  
ipur-zilua buztana hegala  
lepoa burua begiak mokoa xoxoak  
nola kanta nola xirula  
oi, nola kanta xoxoak.

**MILA ALDIZ**

Mila aldiz erori gera tranpa berdiñean  
luzatu gendun eskua  
salba gindezaten  
ta eskutik lotu ginduen.  
Eskuakin kontuz ez ditzagun luzatu  
berriz kate berririk ez dezaguten lotu.  
Hobe ditugu apurtu arkaitzaren kontra  
horma beltzan kontra  
laguntza eskeintzen digutenean kontra.  
Gure buruak katetik  
behar dugunak askatu  
geu gera, geu gera  
edo heriotza.

**XOXOAK XO**

Xoxoak xo  
Udñri lo  
naski malezian dago.

**DERIO**

Ibar luzien gereziak  
ez dute orain lorerik  
Gazteluko larrean dijoa  
golitik goibeltasuna.

Heriotz, heriotz  
heriotz Derion.

Oarrizeko zoroan  
erori da uso-ar gaztea  
Hutsez hutsian bilduta  
zangotik markatua.

Ilargiaren argian itzi du  
hegaldaka seinalia  
hegoak zabal-zabalik  
erori arte lurrean.

Batzango ibar zabala  
hamabost herrikoa  
etxeko oinarri harria  
Batzango gizonak.  
Zuengatik ez zun joko  
Lekarozko kanpalak  
amak semeare känduko  
berunaren ezpalak.

Ez zun bere emak esango  
negarrezko garrasian  
"atzetik hil zaitue, ene seme"  
hegaletik hartzian.

Letra y música: Oskarbi

**ESPERANTZARI LEHIO BAT**

Esperantzari lehio bat  
zabaldu omen diote  
bizí ote den  
ikusteko ere

Baina nekez ikusi dute  
esperantzari

Desilusio usai bat  
erten omen da lehioetik

**PERUTXORENA**

Lelo lirelo zar ai leroba  
iaz zoegia nintzan  
aurten erua  
ai joat gabiraia  
astor usua.

Lelo lirelo zar ai leroba  
ai joat gabiraia  
astorbizara.

Etxo amonari  
gaxo nazala  
penaz nazala  
jatorkedala.

Lelo lirelo zar ai leroba.

**NIK ENTZUN DUT**

Nik entzun dut  
ta harkaitzak ere  
euskera hiltzen dagola.

Bainan gureak ez  
edo ez die ajola.

Eta euskerari  
ez zailo ipintzen  
eragozpenik  
hil dedin behintzat.

Baina Euskal Herrian  
euskera baino lehen  
euskalduna hiltzen da.

Baina euskalduna  
euskaldun motza da  
euskera bainoa ez bada.

Euskera galdu duana  
ez da berriz, euskalduna.

**BENTARA NOA**

Bentara noa bentatik nator  
bentan dut nere gogoa  
ango arosa krabelñetan  
artu dut amorioa.

Ni ederretan zu galantetan  
nik ederretan gogoa  
ederretan den galantena da  
Felisa presentekoa.

Ez dakit zer dan neure maitea  
ene azpaldiko bizia  
gurina sutan ai dan bezala  
urtu zait gorputz guzia.

Bentatik nator bentara noa  
bentan dut neure gogoa  
mosuan gerrian pikoa frango  
mosuan usain gozoa.

**JAUN ERRETORA**

Jaun Erretora.

Kapoi bat badut bazkaritako  
beste bat afaldutzeko (BI)  
andre eder bat oheko  
kirie kirie  
andre eder bat oheko  
a le maison kirie eleison.

Etzekoandre.

Ene senarra monpolietan  
enetzat erremedioketan (BI)  
jin ez baledi sekulan  
kirie kirie  
jin ez baledi sekulan  
a le maison kirie eleison.

Pierre.

Xoriñu bat badut kaiola barnian  
oraindik es da asi kantatzen (BI)  
hura hasten denian kantatzen  
kirie kirie  
hura hasten denian kantatzen  
a le maison kirie eleison.

Markesa.

Jaun erretora baliatu zaizu  
leihotik jausi baituzu (BI)  
nik hemen harrapatu bazindut  
kirie kirie  
nik hemen harrapatu bazindut  
a le maison kirie eleison

**ARTA-ZURIKETA**

Jaungoikoak egun on dizula andre Brijjida.  
Aspaldian ez zaitut ikusi orren goiz jaikia, beti  
bezala dakarkizu kolore gorriak.  
Ez dira bada, eman dizkidalako gosari ttikia.  
Neroni ere baraurik nator, kulpak dituzte ardiak.  
Buenos días tengan ustedes señora, ¿cómo lo  
pasa usted?

Osasunakin, gaztelaniaz yo no sabe.  
Goizian goizik etorria naiz zutaz ezkontzera; prezi-  
sua da ni zure alabakin ezkontzia.

Nere alaba biotzekoa, aizan arapiko, artzan kopa  
bat, kopa bat artzan tratua egiteko, olako propor-  
ziorik ez dun nola nai gaitzeko.

Nere ama biotzekoa, ez naiz orrekin ezkonduko.  
Zer ama dinat arapiko, ez yaizela orrekin ezkon-  
duko?

Goiko larrian bi ardi antzu eta iru artantxo, etxeko  
ganbaran sagu eta zomorro, beko soruan bariak  
abasto, ez al da asko gu biotzeko?

a)	HITZ URRI BATZUK (B. Gandiaga-Oskarbi)	2,15	b)	ESPERANTZARI LEHIO BAT (B. Gandiaga-Oskarbi)	4,15
	XOXOA (Herrikoia)	3,26		PERUTXORENA (Herrikoia)	1,26
	MILA ALDIZ (B. Gandiaga-Oskarbi)	2,52		NIK ENTZUN DUT (B. Gandiaga-Oskarbi)	2,37
	XOXOAK XO (Herrikoia)	2,48		BENTARA NOA (Herrikoia)	3,45
	DERIO (Oskarbi)	5,33		JAUN ERRETORA (Herrikoia)	3,05
				ARTA ZURIKETA (Herrikoia)	1,58

abeslariak:

BAKARTXO MARITXALAR  
AGUSTINA POTESTA  
ELIXABETE URRETA  
IÑAKI MARITXALAR  
JOXE LUIS TREKU  
IÑAKI ZABALETA

eres laguntzak:

ANTTON VALVERDE  
zuzendaria:  
LUIS ROMERO ESKAMENDI

azalaren maketa:  
OTEIZA/GARRIDO

EDIGSA/HG  
HG-142 LS



STEREO

Iñaki beobide  
grabazioaren arduraduna  
33 1/3 r. p. m.  
Dep. Leg. B 40.889/76